

EUSKARA IKASI EDO EUSKARAZ ALFABETATZEKO DIRU-LAGUNTZETARAKO UDAL ARAUDIA

HARTZAILEAK:

Diru-laguntza hauek jaso ahal izango dituzte, araudi honetako baldintzak bete eta Etxebarriko bizilaguna dela, HABEK homologatutako edozein euskaltegitan euskara ikasi edo euskaraz alfabetatzen diharduen pertsona guztiek.

BETEBEHARRAK:

Etxebarriko Udalak onartutako diru-laguntzak jasotzeko ezinbestean ondorengo baldintzak bete beharko dira:

1. Etxebarriko udalerrian erroldaturik egotea.
2. Etxebarriko udalerriarekin inolako diru-zorrik ez edukitzea.
3. Egindako ikastaroan baja ez izatea.
4. Euskalduntze lehenengo mailako ikasleek gutxienez %50eko asistentzia izan behar dute aurreko ikasturtean (diru-laguntza jaso badute) hurrengo ikasturterako diru-laguntza jaso ahal izateko.
5. Gainerako mailetako ikasleek ikasturtean zehar %80ko asistentzia edo altuagoa izan behar dute.

EMANGO DEN DIRU-LAGUNTZA:

Egindako mailaren arabera honako diru-laguntzak emango dira:

- **Euskalduntze 1. maila** egiten duten ikasleen matrikula-sariaren %100 diruz lagunduko da. Euskalduntze 1. mailan matrikulatuko diren ikasleei diru-laguntza eman ahal izateko ikastaroa aprobetxatuko duten konpromisoa idatziz jaso beharko dute (Udalak emango dion konpromiso ziurtagiria sinatu beharko du). Diru-laguntza jaso ahal izateko hartu beharreko konpromisoak beteko ez dituela uste badu, diru-laguntzarik ez eskatzea komeni da.

Ordainketa ikasleari egingo zaio era honetan:

Ikasturte hasieran, matrikula-sariaren erdia (% 50) ordainduko dio Udalak, eta ikasturtea amaitu eta gero, gainontzeko % 50, beti ere, agiri guztiak eta aprobetxamendua eta gainontzekoak egiaztatu ondoren.

- **Euskalduntze 2. mailan** edo **alfabetatzean** diharduten ikasleek matrikula sariaren %80 jasoko dute, ikasturtea amaitu eta gero.

- **Euskalduntze 3. eta 4. mailari** dagozkion ikastaroak egiten dituztenei matrikula sariaren %50 ordainduko zaie ikastaroa amaitutakoan.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

Euskalduntze 2., 3. 4. eta alfabetatze ikastaroetako ikasleek:

Maila horietan ikasle diren guztiek izango dute honelako diru-laguntzen onuradun izateko eskubidea, lehen zehaztutako baldintzak betetzen dituztela ziurtatuz gero. Ikasleek eurek Etxebarriko udaletxeko Erregistro Orokorrean eskura daitezkeen inprimaki normalizatuaren bitartez eskatu behar du diru-laguntza honako agiri hauekin batera:

- Eskatzailearen nortasun-agiria.
- Dagozkion ikastarorako beste inongo erakundeetatik diru-laguntzarik jaso ez izatearen aitortpen sinatua.
- Errolda egiaztagiria.
- Matrikula ordainaren egiaztagiria.
- Diru-sarrera egin nahi den bankuko libretaren lehen orrialdearen fotokopia.
- Ikasketak burutzen dituen ikasguak egindako egiaztagiria, ondorengo zehaztasunak jasoaz: a) emandako eskola orduak; b) egindako ikasmaila; c) ordutegia; d) iraupena; e) matrikula sariaren zenbatekoa; f) aprobetxamendua eta asistentzia.

Euskalduntze 1. mailako ikasleek:

Euskalduntze 1. mailako ikasleen kasuan ikasturte hasieran euskaltegiak Udalari ikasleen zerrenda bat pasatuko dio, ikasle bakoitzaren izen-abizenak eta aurreko ikasturtean matrikula ordaindu bazaio, zein izan den aprobetxamendua jasoko duena.

Euskalduntze 1. mailako ikasleek, diru-laguntza ikasturte hasieran jaso arren, ikasturte amaieran aurretik zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

- Eskatzailearen nortasun-agiria.
- Errolda egiaztagiria.
- Ikasketak burutuko dituen ikasguak egindako egiaztagiria ondoko zehaztasunak jasoaz: a) egin duen ikasmaila; b) ordutegia; c) iraupena; e) matrikula sariaren zenbatekoa; f) ikasleak ikasgu horretan aurretik beste ikastarorik egin badu, berorren aprobetxamendua g) aurreko ikasturtean Udalak matrikula ordaindu dion ala ez.

(Azken ziurtagiria Udalak euskaltegitik zuzenean lortu ahal izango du)

1. mailako ikasleek baldintzak bete dituela baieztatutakoan hurrengo urtean ere matrikula saria ordaindu ahal izango zaio. Baldintzak bete ezean, hurrengo ikasturtean ez zaio matrikularik ordainduko eta ez du diru-laguntzarik jasoko.

EBAZPENA:

Eskaera jaso eta erantsitako agiriak aztertu eta gero, interesdunei jakinaraziko zaie legokeen erabakia bizitokira helaraziko zaien idatzizko jakinarazpenaren bitartez, eta kontu korrontean egingo zaio diru-sarrera hirurogei egunen buruan.

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA:

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea:

- Ekainean amaitutako ikastaroetarako: uztailaren 1etik 15era bitartean.
- Udako trinkoetarako (uztaila, abuztua eta iraila): urriaren 1etik 15era bitartean.

DIRU-PARTIDA:

2011ko ekitaldian Etxebarriko Udalak bere Aurrekontuan Partida bat zabalduko du, euskara ikasi edo euskaraz alfabetatzeko behar besteko diru-laguntzak emateko. Partida horretan gordetako dirua agortutakoan, hurrengo urteko partidarekin beteko da falta dena.

HABE-RI DIRU-LAGUNTZAK JAKINARAZTEA:

Kultura sailburuaren 2003ko abuztuaren 6ko Aginduak zehazten dituen mailak egiaztatuta izan eta HABEk dagokion Ebazpenaren bitartez arautzen dituen diru-laguntzak jaso ahal dituzten ikasleek jasotzen dituzten laguntzetan akatsik eta gain-finantzaketarik egon ez dadin Udalak idatziz jakinaraziko dizkio HABEri emandako diru-laguntzak.

ARAUDI hau lehen aldiz onartu du udalbatzak 2010eko azaroaren 18an

Idazkaria

Ordenantza hau 2010-12-31ko 251. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu da.